

Nafarkaria

• ostirala • 1999ko martxoaren 26a

Egunkaria

Gehigarri honetan

Lizarra • Argazki zaharrak daude ikusgai Kultur Etxean apirilaren 14a arte

Ana Larretxea • «Zergaitik ez dut igo behar?»

Nafarroako arkitektoen



• MIKEL SAIZ

Nafarroako arkitektoak fin dabilta. COAVN Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak bi urtean behin sei ataletan banaturik ematen dituen sarietatik lau nafarrek irabazi dituzte, eta beste batzuen lanak aipamen bereziak izan dituzte. Erakundeak berak dioenez, Euskal Herriko herrialdeetatik Nafarroak du maila gorena, eta hori egiten diren lanetan erreparatuz atzematen omen da.

Lizarra • Txuri-beltzean

Ega ibaiak zeharkatzen duen hiriko argazki zaharrak daude ikusgai Kultur Etxean

Apirilaren 14ra bitartean ikus daitezke Fray Diego Kultur Etxean Lizarrako argazki zaharrak. Orotara ehun argazki inguru bildu dituzte urtetik urtera Domingo Lauro herritarrek prestatzen duen erakusketan.

LIZARRA ANTZINAKO IRUDIPE-an izenburuarekin zabaldu berri dute aurten ere argazki zaharren erakusketa. Bertan, gaur egun erabat desagerturik dauden Lizarrako hainbat eta hainbat txoko ikus daitezke txuri-beltzean, hala nola denborarekin galdu diren tradizioak ere. Horrela, Ega ibaiak zeharkatzen duen hiriaren historia ezagutzeko aukera ezin hobea da urtetik urtera egiten den argazki zaharren erakusketa. 1989. urtean egin zen aurreneko erakusketa, eta geroztik urtero egin da. Beraz, aurtengoak hamargarren aldia betetzen du.

Domingo Lauro 69 urteko lizarrarra arduratzen da argazkiak biltzeaz. Argazkilaria 25.000 negatibo inguru bildu ditu bere bizitza osoan, eta, argazkilaria profesionala ez bada ere, afizio izugarria du gazte-gaztetatik. «1935.



Erakusketan Domingo Lauroren argazkiak dira gehienak.

• ARTXIBOKOA

urtean oparitu zidaten nire aurreneko argazki kamera, eta ordutik aurrera argazkiak atera baino ez dut egin», azaldu du Domingok, pozik.

«Gaur egun ere elurra egiten badu kamera hartu eta, tira, argazkiak ateratzera noa, eta eraikin zahar bat bota behar dutenean, hara joaten naiz,

historia den monumentu horren irudia biltzera». Domingo Laurok pozez gogoratu du argazkiak koloreetan egiten hasi zireneko garaia.

Dena den, gustukoen txuri-beltzez egindako irudiak ditu. Hainbat pasarte bitxi ere baditu kontatzeko. «Hasieran flash-ik ere ez nuen, eta argi gutxi zegoenean geldi-geldi egoteko agintzen nien erretratatu. Hantxe egoten ziren, begiak kliskatu ere egin gabe», dio barrez.

Ehun bat argazki

Hasieran erran bezala, erakusketa honetan ehun bat argazki ikus daitezke. Horietatik erdiak Domingo Laurorenak dira, eta gainontzekoak bertze hainbat pertsonarenak. «Lizarrako jendea oso gustura dator erakusketa ikustera, eta esaten didate etxean badituztela argazkiak... eta hurrengo urtean argazki horiek biltzen ditugu erakusketan; betiere, bereziak badira, jakina», azaldu du Domingok. Aurten 1883. urteko argazki bat da ikus daitekeen argazkirik zaharrena, eta berriena, aldiz, 1960. urtekoa da. Azken horretan, urte hartako abenduaren 30ean jazotako uholdearen irudia jaso da. Halaber, beste hainbat gai eta gertakari ikus daitezke erakusketako argazkietan: Lizarrako jaiak, hirian izan ziren aurreneko autoak, karlistek egiten zituzten jai jendetsuak, beste batzuen artean. Aipatzekoa da, halaber, Alemanian egindako argazki bat. Izan ere, argazkia han atera bazen ere, bertan Lizarratik hara lanera joandako emigratzaileak ageri dira.

→ Kristina Berasain

xoko ttikia

ESTITXU FERNANDEZ



Berriz ere Bitorren burua. Orain dela bi urte Xabier Silveirak jauntzi, iaz Estitxu Arozenak ederki luzitu eta aurten bigarren aldiz Elizagoien arraioztar beteranoa txapel-dun. Nafarroako Bertsolari Txapelketaz ari naiz; joan den igandean izan zen Lesakan final haundia, ETBtik eman ez zutena. Faborito argirik ez, azken urteotan burutik burura dantzan dabil txapela eta finalak ere itxura erabat aldatu du urteen joan-etorrian. Bertso eskolen sorrera eta bulkada hor. Aurpegi berriak ateitzen ditu txapelketak urte-

Leiho idekia

ro, nafar bertsogintzaren aurpegi berriak. Orain arte berri ginenok, gazte ginenok, zazpigarren eta zortzigarren txapelketa dugu dagoeneko (denbora agudoegi doa aitzinera) eta zerbait ikasi dugun esperantza. Finalak, zerbait hartzekotan, heldutasuna hartu du azken hiru urteotan batez ere eta ez taulagaine bertsolarien adinagatik prezeski, bertsoak egin eta kantatzeko moduarengatik baizik: denbora guttiago pentsatzen (dexente guttiago), betelanak ekidinez (saiatu bederen), kantatzeko orduan segurtasuna adieraziz, ez hainbertze tra-

batuz... Eta Lesakako frontoian bertsolariak adina txalo (edo gehiago) merezi zituena, entzulea. Hasiera- hasieratik izan zen txalo, txistu, animo, oihu eta behar zenean isiltasuna, noski! Giro beroa, bertsolarien eskertzekoa eta ordainezina. Gozatu nuen, dudarik gabe, joan den igandean. Astelehenean klasera joan eta ikasle batek erran zidan «badakizu Lesakan egon nintzela?», eta nik «bertsoak aditzen?, ze ilusioa!». «Ez, ez, larunbateko rallya ikustera joan nintzen». Astelehenean ez nuen hainbertze gozatu.

Iruñea

Amiamokoak ikusteko behatokia

GURELURREK AFRIKATIK UDA-berriko epeltasuna sumatuz Europara datozen amiamokoak ikusteko hainbat behatoki jarri ohi ditu egunotan Nafarroan zehar. Dena den, bada bat nahikoa berezia, Iruñean bertan paratzen dutena, hain zuzen. San Blas iristean zikoinak ikusiko dituzula dio érdarazko esaerak, eta badirudi Iruñean esaera bete dela. Jadanik iritsi dira San Frantzisko Xabier elizako kanpandorrera. Blanka Nafarroakoaren plazan dagoen eliza horretan duela urte batzuk jarri zuten habia Gurelurrekoek, eta orduz geroztik amiamoko bikote bat etortzen da urtero txitoak egitera. Aurtengo bikoteko emeak laster jarriko ditu arrautzak. Gurelurreko biologoek diotenez, joan den urteko bikote bera da. Dena den, ez da Nafarroko hiriburura etorri den zikoina bikote bakarra. Elkartek zazpi zenbatu ditu aurten, baina bakarra ausartu da habia hiriburuan egitera. Bikotearen etorrera dela eta, Gurelurrek behatokia bi egunez bakarrik paratu du Blanka Nafarroakoaren plazan. Atzo egin zuten lehen saioa, eta gaur bukatuko dute ikerketa. Hala ere, behin kumeak jaioa berriro ere behatokia paratzeko asmoa dute.

Gainera, elkartek ikas-



• Betelu •

Ate garestitxoa

Beteluko Udalaren azken erabaki polemikoa udaletxeko ate zaharra berritzea izan da. Aurrerantzean, Indianoetxean sartu nahi duenak garai bateko ate zaharra zabaldu beharko du. Ez da lan erraza izango, hala ere, ia mila kiloko pisua baitu. XVIII. mendekoa da atea. Ameriketatik etorri berri zen indiano bat herriko neskatxa gazte batekin maitemindu zen, baina neskatxaren familiak ez zuen begikoa indianoa, eta bien arteko harremana etenarazi zuen. Orduan, amorraturik, indianoak familia horren etxe xumearen aurrean izugarritzko eraikuntza handi bat eraiki zuen: Indianoetxea. Gerora, mojen komentua eta herriko eskola izan zen, eta egun udaletxea da. Lehengo legegintzaldikoek erabaki zuten haritz egurrez egindako eta apaingarriz betetako ate hori berreskuratzea. Horretarako, 900.000 pezeta ordaindu dute, oso egoera kaskarrean baitzegoen. Bere garaian, udaletxeko biltegian baztertu zuten, eta orain, Betelu goitik behera berritu nahi duten honetan, berriro aspaldiko kapritxo garestia berreskuratzea otu zale.

ten ari diren umeei amiamokoan bizimodua erakusteko asmoz, idazki bat bidali du Iruñerriko 92 ikastetxetara ikasleak behatokira ekartitzaketela esateko.

Gurelurrek egindako zenbaketaren arabera, Nafarroan 180 amiamoko bikote daude 54 herritan banatuak. Nolanahi ere, zikoinak batez ere Erriberako herriak

dituzte maite, Tuteran eta Corella, kasu. Bi herriotan 42 eta 22 bikotek jarri baitute habia, hurrenez hurren.

→ Uxue Zabaleta

herri aldizkariak

Asier Legarda

Behi txapelduna

Behi txapeldun baten berri ematen du Herria astekariko azken zenbakiak; izan ere, J.L. Dachaguer makearrak Parisko laborantza erakusketa batera eramane zuten bere behietako bat, eta lehen saria eskuratu zuen esnedunetan, Europa osotik ailegatutako beste askoren artean. Abeltzainari elkarrizketa egin dio Herriak, eta ondokoak dira Dachaguerrek errandakoak: «Bi laborantza erakusketa baziren aurten, bata guziz aipatua Versaillesko atean, bestea aldiz Villepinte aldean laborantzako tresneriak gehienik erakusten dituen eta ofiziokei idekia dena. Nik horrat nituen

neure behiak eramanak. Horrat jinak ziren behiak Europa-guztirik, 350 buruz goiti, behiak eta migak gutiz gehienak esnekoak».

«Holstein behi xuri gorrietan presentatu dut *Ilance-Red* neure behia. Bere kategorian lehenbiziko saria eskuratu du. Ondotik kategoria guzietako lehen sarien artean bat hoberenen hoberena hautatzen baitute, hor berriz lehen saria irabazi du. Urtean 9.000 pinta emaiten ditu, hots 25 pinta egunean. Baina oraino hobea dena hauxe da, emaiten duen esneketa horren kalitatea biziki ona dela. Badu zenbait urte ari

garela gure GAEC-ean behi esnedun saldo pollitaren ateratzera, kasu egiten diogu aintz genetika. Egia da ere departamenduko lehiaketan 17 sari eskuratuak genituela».

Abeltzainak argi dauka behi txapeldunak hazteko sekretua zein den: «Behar dituzu bazka onak, guk Euskal Herrian ditugun bezalakoak. Guk nahi ditugu behi azkar eta osagarri onekoak, iraupena ukanen dutenak. Gure jokabidea ez da esnea, esnea eta esnea, eta kito, horrengatik saristapen horiek beste ikusmolde bat sustatzen dute».



urdairen mintzoa

Xabier Larraburu

Catwoman eta Batman

Beste gai bati buruz artikulu bat osatzen ari nintzen, baina katua atea bultzatu eta nire gainean eseri da, eta atzo gauean gertatu zitzaiguna ekarri dit gogora. Atzo gauean leihoaren aurrean ikusi nuen adi-adi gauari begira, eta leihoa ireki nion aldemeneko teiatuetatik paseatzeko. Ni ere han egon nintzen pixka bat izarrak eta planetak begiratzen eta lurra hartu behar zuen abioi baten argiak segitzen (datu honekin Euskalerrira Irratiko Pellok ordu zehatza emango zidan: «Bederatziak eta ez dakitzenbat, Madrileko abioia»). Bainan ez gaitzen Pelloren hitzjariorarekin distraitu eta segi dezagun



kontakizunarekin!

Xaxak teiatutik bueltan xaguzahar bat ekarri zuen ahoan, ñiñiñi! egiten zuen xaguzahar txiki eta beltz bat, eta pasilloan askatu zuen, hegan egin zezan, berriz ere harrapatzeko, jokua luzatzeko, badakizue. «Eta zer?»- esango didazue. A klaro! zuek bezalako baserriarrok, animaliekin tratatu handia izan duzuenok, gauza guztiak ikusiak dituzuen hoiek: txakur bat oloek akatua..., eeeee...ahatea txerria ahoan eramaten!, zuek den dena ikusi duzue! Baina niretzat, hiri kumea naizen aldetik, irudi ikaragarria izan zen. Ez dut inongo metaforarik egingo esanez, esate baterako, naturaren irudi ilun eta bortitza kolpatu ninduela eta horrelakoak, ez. Baina sikiera utz nazazue esaten naturaren benetako irudi bat ikusi nuela eta benetakoa esaten dudanean gure hirietako eta etxeetako barruan baina, aldi berean, atean dagoen naturari buruz ari naiz. Etxeak izan aurretik eta hiriak hondatu ondotik iraun iraungo duen naturaz. Pasilloan gizasemeek hil eta gero iraungo duen ekintza bat ikusi nuen. Gure liburu eta arma hauskor, herdoildu eta hautsez beteen gainetik mantenduko diren jolasak. Punto. Sentiberak direnentzat xaguzaharra askatu eta libratu nuela esanez bukatuko dut. Bien! Gora Xabi!

Nafarroako arkitektoen uzta ona

Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak bi urtean behin sei ataletan banaturik ematen dituen sarieratik lau nafarrek jaso dituzte

Nafarroako arkitektoek fin dabilta. COAVN Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak bi urtetik bi urtera sei ataletan banaturik ematen dituen sarieratik lautan nafarrak izan dira lehen saria jaso dutenak, eta beste batzuen lanek aipamen berezia izan dute. Erakundeak berak dioenez, Euskal Herriko herrialdeetatik Nafarroak du maila gorena, eta hori egiten diren lanetan erreparaturik atzematen da. Hona hemen uzta horren bi adibide.

EUSKAL HERRIKO ARKITEKTOEN ELKARGO OFIZIALAK (COAVN) bi urterik bertako arkitektoek egiten dituzten lanak saritzen ditu sei ataletan: eraikuntzan, planeamenduan, zaharberritzean, interiorismoan, diseinuan eta kultura arkitektonikoan. Sei atal horietatik lautan arkitekto nafarrak izan dira garaile: eraikuntzan, zaharberritzean, planeamenduan eta interiorismoan, hain zuzen. Maite Apeztegia eta Ana Arriazu nafarrek Gorraitzaren, Iruñea ondoko urbanizazio batean, egindako etxe batek jaso du lehen saria. Eduardo Arroyo bizkaitarrak Sondikan egindako haur-tzaindegia ere jaso du.

Maite Apeztegia eta Ana Arriazuk Gorraitzaren egin duten etxeak ez du ondoan daudenekin zerikusirik. Gainontzeak molde bereko etxeak dira, ingeles itxurakoak eta oso tradizionalak. Apeztegia eta Arriazuk, berriz, modernitate kutsua ezarri dute han tartean. Hango golf zelaira ematen duen lur puska luze eta mehar batean etxea eraikitzeak proiektua gauzatu dute. Proiektua hasieratik bezeroaren eta euren arteko elkarlana izan dela aitortu dute. «Nahi zuten etxea



Patxi Mangadoren industri nabeak aipamen berezia izan du eraikuntza atalean.
● MIKEL SAIZ

aurkitzen joan ginen, pentsaturik ez dugula jendearen bizitzeko era aldatu behar. Zapata hankara egokitu behar zen», gogoratu du Apeztegia. Etxe-bizitzak ez du antzik ondokoekin. Kalcen aipenas nabarmenak den, baina aurrealde handia du, landetxe modukoa da. «Beraz, kalera begira, aurrealdeak garaiera ahal den handiena du, eta jaisten doa atzetik, lorategira irekitzen den beirte handi bat da. Oso etxe itxia da, baina, era berean, oso irekia, eta, gainera, argi asko du», azpimarratu dute. Jendeak horrela ulertu ez arren, aurrealde oso klasiko omen du, «klasikoa da, jauregiak aurrealde moderno bat baino gehiago. Aldiz, atzetik ondokoekin zerikusirik ez duen etxalde oso bat da». Lantzean behin elkarrekin lan egiteko biltzen diren bi emakumeok Eusko Jaurlaritzak Donostiako Benta-berri auzorako deitutako proiektua irabazi zuten eta Nafarroako Auditoriumeko lehiaketan hirugarren izan ziren. Sari batek ematen duen poztasuna aprobetxatuz, Iruñeko Apaizgaitegian apez-

dute, eta oso misteriosoa da, kanpotik ez delako atzematen barruan inor dagoenik, baina barrukoek kanpora begira dezakete. Aldiz, atzealdetik begiratzen baduzu, etxea lorategira irekitzen den beirte handi bat da. Oso etxe itxia da, baina, era berean, oso irekia, eta, gainera, argi asko du», azpimarratu dute. Jendeak horrela ulertu ez arren, aurrealde oso klasiko omen du, «klasikoa da, jauregiak aurrealde moderno bat baino gehiago. Aldiz, atzetik ondokoekin zerikusirik ez duen etxalde oso bat da». Lantzean behin elkarrekin lan egiteko biltzen diren bi emakumeok Eusko Jaurlaritzak Donostiako Benta-berri auzorako deitutako proiektua irabazi zuten eta Nafarroako Auditoriumeko lehiaketan hirugarren izan ziren. Sari batek ematen duen poztasuna aprobetxatuz, Iruñeko Apaizgaitegian apez-

Saritu behiago

Baina Maite Apeztegia, Ana Arriazu eta Antonio Vailloren proiektuak eta Iruñean ez dira izan saritutako bakarrak. Aipamen berezia izan dute Patxi Mangado eta Luis Tena nafarrek ere. Mangadok Gamesa Eolikarendako Iruñerriko industrialek batean eraikitako industri nabe batengatik jaso du saria, eta, Tenak Miranda de Argako La Galena frotoiari jarritako estalkiak.

Planeamendu atalean, Iruñerriko eskualdeko haur-aren proiektuak irabazi du. Lana herrialdeko beste arkitektoek egin dute: Victor Honoratok, Sigifredo Martonek, Jose Ignacio Arribasek, Jose Arcosek eta Jose Sanchezek. Atal berean, aipamen berezia izan du

pikuentzako etxebizitza egiteko proiektua prestatzen dihardute.

Antonio Vailloren barrualdeak
Juan Luis Irigarai eta Antonio Vailloren arkitektoek bi urte daramate elkarrekin lanean. Berek lan egiteko diseinutako estudioak interiorismoko lehen saria jaso du.

Vailloren aburuz, diseinua funtzioak baldintzatzen du, eta beti salatzen da argitasuna bilatzen, finen, arkitekturan dena argiaren baitan eta funtzioaren egin delako.

Bere estudioa Iruñeko II Zabalguneko atari itxi batean dago, eta itxia izan arren argitasuna da nagusi eraikinean. «Argiarekin lan egin dugu, dena da grisa, oso material oinarrikoak eta merkeak erabili ditugu: txapa galbanizata, arkitekturan berriak diren beste material batzuk: plastikoa, metakrilatoa, polikarbonatoa, beira ezberdinak eta merkeagoak», azaldu du. Hauskorak eta pisu gutxiok dira erabilitako materialak, aldaketak ahalbidetzen dituztelako eta egin behar diren egiturek pisu gutxiok izan behar dutelako. Bulegoetan betiko uralita laua, eta argiak eraldatzen du espazioa.

«Lan biluzi bat da, eta ihes egin dugu azken boladan egon den jadanik diseinatu zegoena berriro diseinatzeko joeratik. Hemen uralita torlojoekin josten da, txapari soldadurak ikusten zaizkio, baina espazioak hainbeste indarra duenez ezen, horrelako ezaugarrien gaitetik dagoela», gaineratu du arkitektoak eta interiorismoaz oso iritzi landua duen arkitekto horrek.

Vailloren proiektuak, urteetan lanean aritu ondoren bere estiloaren onarpena delako saria. «Estudioa da itxura honetako lehen lana, eta horregatik sariak gehiago ase nau. Lanean aritzen zaren heinean zeure bidea aurkitzen zoaz. Ofizioan hanka sartuz eta ikasiz egin ahal izan dute nahi nuena eta baliabide gutxiekin. Arkitektura onaren sinimoa ez da diru asko gastatzea, gauzak zainduz eta koherentziak ongi egitea balizki, nabaritu du.

Ildo horri eutsiz, proiektu handi bat egiten



Maite Apeztegia eta Ana Arriazuk egindako proiektuko etxeak ez du antzik ondoko etxeekin.
● MIKEL SAIZ

dioa», azaldu du Vailloren arkitektoak. Gauzak eta materialak izateko arrazoiak dute. Ez dago kolorerik, dena da grisa, baina, aldi berean, beroa, argiarekin jokatu delako. Argiarekin jokatzea da zailena, baina, era berean, esker onekoena da.

Vailloren aburuz, diseinua funtzioak baldintzatzen du, eta beti salatzen da argitasuna bilatzen, finen, arkitekturan dena argiaren baitan eta funtzioaren egin delako. Bere estudioa Iruñeko II Zabalguneko atari itxi batean dago, eta itxia izan arren argitasuna da nagusi eraikinean. «Argiarekin lan egin dugu, dena da grisa, oso material oinarrikoak eta merkeak erabili ditugu: txapa galbanizata, arkitekturan berriak diren beste material batzuk: plastikoa, metakrilatoa, polikarbonatoa, beira ezberdinak eta merkeagoak», azaldu du. Hauskorak eta pisu gutxiok dira erabilitako materialak, aldaketak ahalbidetzen dituztelako eta egin behar diren egiturek pisu gutxiok izan behar dutelako. Bulegoetan betiko uralita laua, eta argiak eraldatzen du espazioa.

«Lan biluzi bat da, eta ihes egin dugu azken boladan egon den jadanik diseinatu zegoena berriro diseinatzeko joeratik. Hemen uralita torlojoekin josten da, txapari soldadurak ikusten zaizkio, baina espazioak hainbeste indarra duenez ezen, horrelako ezaugarrien gaitetik dagoela», gaineratu du arkitektoak eta interiorismoaz oso iritzi landua duen arkitekto horrek.

Vailloren proiektuak, urteetan lanean aritu ondoren bere estiloaren onarpena delako saria. «Estudioa da itxura honetako lehen lana, eta horregatik sariak gehiago ase nau. Lanean aritzen zaren heinean zeure bidea aurkitzen zoaz. Ofizioan hanka sartuz eta ikasiz egin ahal izan dute nahi nuena eta baliabide gutxiekin. Arkitektura onaren sinimoa ez da diru asko gastatzea, gauzak zainduz eta koherentziak ongi egitea balizki, nabaritu du.

Ildo horri eutsiz, proiektu handi bat egiten

Maite Apeztegia:

«Kalera oso zirrikitu gutik ematen dute eta oso misteriosoa da barruan bizi den jendea, ez baita ikusten, baina kanpora begira dezake. Aldiz, atzealdetik begiratzen baduzu, etxea lorategira irekitzen den kristalera handi bat da».

Arkitektura oparoa

Manuel Paja COAVNko idazkariaren iritziz, Euskal Herriko arkitekturaren maila oso ona da, Europakoaren parekoa. Pajak aitortu du, gainera, Euskal Herrian mailarik hobereena Nafarroak duela. Elkar goak 1950 arkitekto biltzen ditu eta bi urterik banatzen diren sariak maila apalago batean dagoen arkitekturaren balioa goraipatu nahi du, dena ez baita Euskalduna edo Guggenheim bezalako eraikin garesti eta erraldoiak egitea.

Iritzi berekoak dira aipatu bi sarituak. Apeztegiaren zein Vailloren irudiko, Nafarroan arkitekturak oso maila ona lortu du. «Egun, Europako arkitekturaren gune garrantzitsuenetako bat da hemen egiten den lana. Izar handiez landa, guztion ahotan dauden Moneo eta besteek landa», dio Vailloren.

Maila ona den arren, ezin daiteke hitz egin euskal eskola batez arkitekto bakoitzak bere joera omen duelako. Hala ere, onartzen dute 80ko hamarkadako arkitektura eroa eta iragankorra beste arkitektura errotuago eta oinarrikoagoa bilakatzen ari dela.

«Oso bide unibertsala eta balizkoa da. Ez dago estilo bat, baina badaude balio batzuk, gizarteak berak dituenak eta arkitekturak barneratu dituenak», dio Vailloren.

→ Irene Arrizurieta

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Zuberoako bedatse loraduna II

Gauza jakina da ttipiena dela Xiberua, eta guztiarekin ere, zeinen ugariak euskal letren unibertsoan zuberotarrek hai-zatu loreak! Udaberriko koloreak eta usainak gustagarri jada hasiak diren honetan, udan ez neguan lilia galtzen ez duten loreak bilduz hona hemen sorta pollita



PARIS ALDEKO MONTFORT-
li Amauryn sendagile aritu
zen Felix LARRIEU (1863-
1941) zuberotarrak abondo
lan idatzi zituen euskal galez
zein euskaraz, tartean *Mauleon et le Pays de Soule pendant la révolution* -Parisen
1899.ean-, edota *Un essai de calendrier républicain en basque* -Vinsonen *Revue de linguistique et de philologie comparée* aldizkarian, 1891.ean-.
Jean de Soule ezizenaren
azpian ere itzulpen ugari egin
zuen *Revue des Basses-Pyrénées et des Landes* aldizkarian. Orobat ezagunak dira Charles Bordesen kantutegietan tajutu zituen itzulpenak.

Klement ANDURAIN Maitia
Zibero 1878.ean jaio eta
1916.ean zendu zen Verdun-
en. Justin MENDITTE apez-
zarekin batera Ziberoko
uskaldunak *Ibañeta*n pastora-
la idatzi zuen, estreinakoz
1906.ean Atharratzen jokatu
zena. Olerki zenbait ere utzi
zizkigun: *Euzkaride*, Maritxo-
edota *Poèmes de guerre*. Alpa-
tu Menditte hura Mendikotan
jaio zen 1867.ean eta Atharra-
tzen zendu 1922.ean. Eskual-
tzaleen Biltzarrekoa, euskal-
tzain urgazlea ere izan zen.
Andurainekin egin zuen pas-
toralaz gain, Atharratzeko
apeza ere zen Uhartekin bate-
ra zubererazko katexima taju-
tu zuen.

Basabürükoa zen IRIBAR-
NE Zalgizeko erretoreak utzi
zizkigun *Almanak* uskara edo
Ziberuko Egunaria dietarioez
gainera -Pariseko L. Soullere-
nean 1887.ez geroz eta
1891.era bitartean gutxienez,
hiru liburu eman zituen argi-
tara: *Ziberuko guthuna edo libria* -Pabeko E. Vignancou-
rrean 1852.ean-; bi edizio
izan zituen *Mysterio eta egia*
gehienak -Baionako Desplan
baitan 1856.ean, eta Pabeko
Vignancouren etxean
1862.ean-; eta *San Grat Olo-
rueco aphezcupia* -Pabeko
Vignancouren moldetegian

ere 1879.ean-. Lehenbizikoa
*Jaun aphezcupiari oberenda-
turic* atera zuen: «goure
ganat ene bihotz beha-
rriak eraikiric nun-
tian aldi batez,
entçun çuntudan
erraiten: damu
da, Ciberouan
estelakoz
libru guti
baicic, eta
direnac kha-
rio. Coure elhe
hori guerouan
arra igaran niçun
Jaun Archipetra
martir hil denareki,
eta harec erran,
behar cela eguin isseiu bat
çoure elhiaren eta gogouaren
arabera. Hau duçula arren,
ene Jauna, çoure handitar
junari ouhourescatcen dudan
lan bat, escaz çoumbat nahi,
ez ouste dudanaz çoure
arrancura handia bardintu-
ren dila; bena bai, nahiz
eguin hougoua cerbait ene
Ciberoutar lagunere; çoure
handitarçunac houn hartcen
badu bere baimentiaren emai-
tia: hari berari eskentcen
tudalaric, aphalementureki,
ouhoure barnenac». Hiruga-
rrera, berriz, Lexantzükooa
zen -Sarrikota-plakotzat ager-
tu da non-edo-non- San Grat
VI. mendean Oloruen apezpi-
ku arizan zenaz *Mous de Las-
salle Catradaleco eretorac*
erran dutianac uskaraz ezarri-
rikoa dugu: «Uscal Herrian
Ciberoua, Ciberou zolan
Lichoseco herria. Zubian iga-
ran eta, erreca oundouan bat-
cen da Camintchale edo Sen-
gratenia. Han southu da, dila
hamahirour ehun ourthe iga-
ranic, Sen Grat Olorouco
Aphezcupu izan dena».

Julien LAPLACE olerki bil-
tzaille arizan zitzaigun *Pôesis*
suletins izeneko lanean, Olo-
roen, Marque etxean,
1908.ean. Horrezaz gain, hiru
ekitaldiko komedia agertu
zigun ber tokian 1909.ean,
Xikito-Xikitokan, Pilotarien

zeruan idazkia ere Oloroen
atera zuen 1911.ean. Aldiz,
1915.eko *Europa* sutan eta
1916.eko *O zu ama Frantzia*

idazkiak Eskiulan
agertu zituen.
XORHO apezka Zalgi-
zeko Espil etxean
1884.ean sortu zen;
Hendaian eta Maulen
ihardun zuen apez-
laguntzaille lehenbizi,
Garindaineko erretore
luzaro aritzeko gero.
Urte luzetan
Eskualduna zein
Herria astekarietan
idatzi zuen, Onain-
diak jaso legez,

«Zuberoko berri atseginga-
rriak bialtzen zituen, ango
euskera goxo bigunean gatza-
tua». Maulen zendu zen
1968.eko azaroan.

Pierre EIHERAMENDI Mau-
len jaio zen 1891.eko aben-
duaren 20an. Behin apez-
tuz gero, Alduden, Bidarrain,
Donazararren eta Mugerren
izan zen erretore. Euskaltzain
urgazlea 1953.etik, Kanbon
zendu zen 1975.ean. Gure
Herria aldizkarian idazteaz
gainera, euskara ikasteko
metodoa izkiriatu zuen hiru
emaldietan: *Méthode pratique*
pour apprendre le Basque -
Parise, Maison Neuve, 1929-
Cours Moyen ber tokian
1930.ean-, eta *Cours Supe-
rieur* -ber tokian ere
1938.ean-.

«Zibero» eta «Pette Xibero»
sinatzen zuen Pierre LANU-
GERREk Baionako Eskual-
dun Onaren eskutik atera
zuen *Uskaldunak Ibaçetan*
hitrur pharteko trajeria atera-
tzeaz aparte lan ugari agertu
zituen *Gure Herria*-n 1924-
1935 bitartean, gehienak oler-
kiak: *Argi azkorria*, *Biürzuak*,
*Gai aichera eta bi andere eje-
rrak*, *Biesadiin*, *Kritxa eta*
üçhürria, edota *Urthatsez*, bai-
na baita hitz lauokak ere:
Mustaka, *Degro Parot degria*,
Arima herrariak edota *Atha-
rratzeko predikua*.



etorri ahalean

Patziku Perurena



Fededun irriaz

Fedea biolentzia da,
edozein fede klase:
erlijiosoa, politikoa,
ekonomikoa, artisti-
koa, kirolekikoa... Espa horren
atzean, fededuna dago beti au-
rreneko danbatekoa emateko
prest, eta inor izorratzen edo
akabatzen badu, amodioaren
izenean egiten ditu beti.

Niri ez zidaten inon erakutsi
zalantza zela tolerantziaren eta
jakinminaren guraso: ez dotri-
nean, ez eskolan, ez kalean, ez
etxean. Nik neronek ikasi behar
izandu dut: gizaminez eta eskar-
mentuz.

Gazteak berez dakar jakinmin
ergela, baina ez da kapaz tole-
rante izateko, eta gero eta traza
haundiagoak ditu gainera, abere
basati batenak, eta halere denek
gaztetu egin nahi gaitu egungo
merkatuak.

Zaharrak toleranteak dira,
baina, galduta jakiminerako
irrika eta indarra, jubilatuen
kontura bizi nahi dutenek beste-
rik sinestarazi nahi diguten
arren.

Bizitzetaz eta jakitez findutako
gizon zailduak, aldiz, badaki to-
lerantzia eta aldi berean jakin-
mina gordetzen. Baina, egungo
gizartean, bakanak dira halako-
ak, eta gainera ez ditu kasik
inork ere aintzat hartzen. Eta ge-
ro, inorantzia eta intolerantzia
fede dituen gizarte honek, jaki-
na, tolerantzia eta jakintza alda-
rrikatu behar inor nazkatzerai-
no.

Alferrik ordea. Fededunak al-
dez aurretik dena jakintzat jo-
tzen baitu; ez du zalantzarik iza-
ten sekulan, ez da deustaz harri-
tzeko kapaz, eta Aristotelesek
esana: harrimena izaki jakinmi-
naren aurreneko eragile.

Egia da jende asko eta asko,
kasik gizarte ergel osoa, fedeak
egiten duela oharkabea zorio-
neko, baina, zinez zozoa behar
du izan batek zorioneko izateko.
Eta fedeak, hain zorioneko eta
gizajo ez dena ere, azkenean gi-
zajotu egiten du, aberetu.

Zenbat eta gutiago jakin, or-
duan eta aisago gordetzen da fe-
dea. Horregatik ez zaizkio santa
sekulan gustatu izandu jakitun

ezkorrak eta zinezko eskeptiko-
ak, ez elizari, ez politikoari, ez
merkataritari, ez berbaro intelek-
tualari, ez eskolari, ez unibertsita-
teari, eta ez egungo funtziona-
ri aulkidunari.

Fedearen sare erraldoiak pit-
tin bat urratzen inori erakuste
hutsak ikaratu egiten baitu ha-
lako jendajea. Inozoak behar di-
tu sailean, «egia eta fede» nora-
nahi bizkarrean eramanen dio-
ten abere baikorrak. Maisua eta
distzipulua, mila modutan, fede-
ak sortu ditu, munduan erru-
dun sentitze zahar batek.

Fededunak ez ditu sekulan
onartuko bere hutsik, eta gu,
sorkari doakabeok, geure hu-
tsen eta usteen arrimorik gabe
ez gara deus. Horregatik ez da
inor, perfektu usteko hark baino
errudun sentimentu haundia-
goa kutsatzen duenik. Fanatis-
mo horretxek eusten baitio nahi-
nolako fedetan.

Nere bihotza erre nahi duen
fededun horrek ere, bere burua
munduan errudun sentitzen
duelako erre nahi dit, izanez ere,
fededun bihurtu zuten geroztik,
agintzen dioten guzia sine-
tsiko baitizu. Horra euskal iraul-
tzaille parasitoea, nere izenarekin
nere bihotza erre nahian, ni
EH.ko zor publiko euskaradun
bat banintz bezala.

Fededunari berdin zaio esku-
ineko izan, edo ezkerreko, zanpa-
tu eta zanpatzaille izan nahi bai-
tu beti, bestela nola izan fede-
dun? taigabe norbaiti mendeku-
ka aritzeko.

Gauza bati erreparatu izan
diot maiz: jende fededunak irri
egiteko duen manerari. Bai, irri
egiteko duen modutik igertzen
diot jende askori zer fede klase
duen munduaz eta mundukoez.
Irri xitala egiten du fededunak
jeneralean.

Periko lagun nereak esaten
zuen: «jendaje fededunak hain-
beste sufritzen du malamentean,
non irria asmatu behar izan duen
animalia bakarra den». Eta
munduan inoiz egin eta saldu
ote da egun baino irri xital gehia-
go? Eta jendea, gaztea endemas,
fedea galtzen ari dela esanen di-
date, gero! Leku ederrean!

Ziria

• Motxorrosolo •

Lasterka

ZINEZ ENGAIATUA, HELBURU ANDANA, GEHIEN BAT AKUILU GISA
baliatu izan da. Berez, ikusgarria, balio handikoa,
ezaugarriak kilometro adina. Betiere, ez da lur zafratu edota
idortuan ereina izan, gehien bat, gure dinamismoaren isla,
eta hori da elikatu behar dena, pausoka bada ere.

Ana Larretxea

☉ Mendizalea

«Zergatik ez dut igo behar?»

Berako beste lau mutilekin batera, Ana Larretxea aranztarra Gasherbrum IIra igotzen saiatuko da, Himalayako Karakorum mendikateko 8.035 metroko gailur batera. Bortzirietako espedizioa ekainaren 1ean aterako da. Larretxeak helburua lortuko duela uste du, eta egiten badu Euskal Herriko lehen emakumea izanen da. Dena den, lehenik eta behin bere buruagatik igo nahi du.



● MIKUL SAIZ

GURASOEN OSTATUAN, ARANTZAKO Paulonean, zerbitzari lana utzi du tarte batean gurekin solasteko. Bizi mintzatzzen da Ana, mendiak igotzeko behar den segurtasuna eta tinkotasuna falta ez zaiola erakutsiz.

■ Nola otu zaizu Gasherbrum II mendiko espedizioan abiatzea?

Hasi nintzen ibiltzen mutil batzuekin mendian. Beti erraten genuen 2000. urtean 8.000ko bat egin behar genuela. Orain dela bi urte Perura joan ginen. Erraten genuen hura ongi ateratzen bazen hasiko ginelan mendi handiagoetara joaten. Perun bortzak hagitz ongi ibili ginen, eta handik etorri eta hasi ginen zortzi milakoa igotzeko bidaia prestatzen. Perun hango gailurrik altuena igo genuen, Guaskaran, 6.769 metrokoa, eta Altamayo 5.000 metrokoa ere eskalatu genuen.

■ Prestaketa berezirik egiten ari zarete?

Orain bai. Ramon Garate Euskal Federazioko medikuak egin dizkigu proba fisikoak eta bakoitzari entrenamendu bat jarri digu, bostak hagitz desberdinak garelako. Ni neska izanik aldatzen da entrenamendua eta aunitzez lasaia egin behar dut. Ez dut euren erritmoan ibili behar, haiek adina denbora bai baina ez erritmo berean. Eurekin entrenatzen hasi nintzen, baina sobra agudo joaten nintzen eta orain bakarrik entrenatzen naiz.

■ Noiztik ari zara entrenatzen?

Serio hasteko esan zigun Eguberri ondotik. Ez duzu laubost hilabete barruak emanda aritu behar, formaz pasatzea

ere ez baita ona. Joan behar duzu zure aukeren %80a edo. Han beheko kanpamentura hurbiltzeko behar dira zazpi egun eta han ere hartzen duzu forma, goiti eta beheiti kanpamentuak montatzen. Pasatzen bazara, momentu batean lehertu egiten zara.

■ Zer prestaketa egiten duzu?

Astelehenetan gimnasioa egiten dugu, eta asteartean eta ortzegunean ordu bat lasterka; astetik atera gehitzen joaten da hori. Asteazkenean, berriz, atsedena izaten dugu. Ortziralean bertze kirolen bat egiten dugu, eta aste bukaeran mendira joaten gara. Aldapak igotzen ditugu bizkarrean hainbertzeko pisua daramagula. Eguraldi txarra bada, gelditzen gara hemen eta ibiltzen gara Bortzirietako mendietan edo Baztanen. Bertzela Pirinioetara, elurretan ere ibili behar baita.

■ Noiztik datorkizu mendian ibiltzeko afizioa?

Orain dela sei urte edo hasi nintzen mendian. Lehenago aritu naiz beti kirolen bat egiten. Hasi nintzen taldeko mutil batekin ibiltzen eta leku zailletara joaten hasi zirenean etxean gelditzen nintzen. Baina Peruko aukeraz solastu ginelarik, ni ere joan nintzen beste laurekin eta han ongi ikusi nuen nire burua eta geroztik denak joaten gara.

■ Lortuko duzuela uste duzue?

Uste dut baietz. Zenbat eta gehiago entrenatu, hobeki ikusten dut neure burua eta

«Jendeak ez dudala igo behar dio behin eta berriro, baina berdin zait; zenbat eta gehiago erran, animo handiagoa dut igotzeko».

bertzeek ere gauza bera diote. Hemen jendeak erraten du: «lau horiek igoko dira baino zu?», eta nik erraten diet beti emateko arrazoi bat, zergatik ez dudan igo behar.

■ Goiti ailegatzen bazara, badakizu Euskal Herriko lehen emakumea izanen zarela?

Bai. Niretzat hori ez da deus. Ez dut igo nahi lehenbiziko emakume euskalduna izateagatik, neuregatik baizik. Jendeak ez dudala igo behar dio behin eta berriro, baina berdin zait, zenbat eta gehiago erran animo gehiago dut igotzeko.

■ Beraz, desafio handiak gus-tuko dituzu?

Bai. Goiko desafioa behar duzu serio hartzeko entrenamendua. Aste bukaeretan ez atera parrandan eta beti mendira joan. «Igo behar dut mendi hori edo hura» buruan izanik ikaragarritzko gogoarekin egiten duzu, eta gainerakoak berdin dio.

■ Zer eskatuko diozu mendiarari eta eguraldiari egun horretan?

Eguraldi ona izatea; txarra baldin bada igual ezin gara saiatu ere. Eta ongi jaistea. Goiti bai baina gero beheiti Pirinioetan ere kostatzen da batzuetan, ba han ere pentsatzen dut baietz. Indarra izatea jais-teko.

soslaia

Ana Larretxeak 25 urte ditu, eta Nekazari Ingeniaritza Teknikoa ikasten ari da Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Lau ikasgai falta zaizkio ikasketak bukatzeko, baina irailerako utzi beharko ditu Pakistanera baitoa, Gasherbrum II igotzeko espedizioan. Gurasoen ostatuan aritzen da lanean goizero, eta arratsaldeetan Berara joaten da beste lau espediziokideak ikustera.

Goizetan, gogor entrenatzeaz gain, Arantzako Paulonea gurasoen ostatuan lanean aritzen da, eta arratsaldeetan espedizioa osatuko duten beste lau beratarrekin (Xabier Erkizia, Luis Mari eta Patxi Pikabea, eta Xabino Korta) juntatzen da maiz, solasteko edo trago bat hartzeko.

Ekainaren 1ean abiatuko dira Pakistango hiriburura. Han zamaketariak hartu eta jana erosi eta beheko kanpamentura abiatuko dira. Han 27 egun egonen dira. «Denbora hartu dugu saio bat baino gehiago egiteko, eguraldi txarra tokatuz gero», dio. Lau kanpamentu muntatuko dituzte. «Ikusten badugu ongi gaudela eta eguraldi ona dagoela, saiatuko gara goiti joaten», esan digu.

■ Mendizale nafarren maila zer moduzkoa da?

Iruñaldean bada maila handia, gehiago, batez ere, eskalatzten. Bada jende hagitz-hagitz ona. Mari Abregok eta Pitxi Egillorrek egin zuten gailur hau joan den urtean.

■ Zein ezaugarri behar ditu mendizale on batek?

Gehienbat gustatzea, eta gustatzen bazaizu aunitz ibiltzea aisa egiten duzu. Sakrifizio pixka bat ere bada, eta batzuetan sofritu egin behar da.

■ Hurrengo erronka zein duzue?

Oraindik ez dugu pentsatu. Solasten gara, asteburuan Pirinioetan genbiltzala esperientzia ongi ateratzen bada beste bat prestatuko dugula pentsatu genuen. Baina oraingoz nahikoa lan hau ateratzen.

→ Irene Arrizurieta

Nafarkaria

Egunkaria

• ostirala • 1999ko martxoaren 26a

ZALDIEROA.komikizopa



gure aukerak

KONTZERTUAK

► **Lesaka:** Joxe Riplauren kontzertua izanen da bihar Atxaspi ostatuan, 22:30etan.

eskainiko dute Juan Frances de Iribarren Musika Eskolako ikasleek Karmengo Auditoriumean. Emanaldia 19:30etan izanen da.

koa XXL taldeak hartuko du, eta Melilla tuvo que ser lana taularatu du 19:30etan.

zabalik eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00ak arte.

BESTELAKOAK

► **Sunbilla:** Bertso afaria izanen da gaur Ulibeltzak elkartean 21:30etan. Bertso kantari ariko dira Estitxu Arozena eta Sebastian Lizaso.

► **Garraida:** Futbito txapelketaren finala bihar 18:30etan.

► **Zangoza:** Hiru eta sei urte bitarteko haurrendako musika eta mugimendu ikastaroa antolatu du Kultur Etxeak apirilaren 12tik ekainaren 12ra arte. Izena eman nahi duenak martxoaren 31 baino lehen egin beharko du.


ERAKUSKETAK

► **Burlata:** Arturo Navazen margolanak ikus daitezke hila bukatu arte Kultur Etxean. Lanegunetan 19:00etatik 21:00etara dago



Arestiren liburutegia

Castelao nos



► **Burlata:** Def Con Dos, Narco eta Skalarik taldeek kontzertua eskainiko dute Askatasuna frontoian, bihar, 23:00etan.

► **Iruñea:** Txomin Heguyk, Frantxua Costeak, Mari-Helene Estecahandyk eta Maddi Oyenartek kontzertua emanen dute datorren astelehenean, Erraldoiek Txokoan, 20:00etan.

► **Iruñea:** Cracoviako Orkestrak eta Abesbatza Filarmonikoak kontzertua eskainiko du datorren astelehenean Gaiarre antzokian, 20:00etan. Mozarten Meza do minorrean eskainiko dute.

► **Iruñea:** Datorren asteazkenean, Sarasate Orkestraren eta Iruñeko Orfeoiaren emanaldia izanen da Gaiarre antzokian, 20:00etan.

► **Zangoza:** Datorren astelehenean saxofoi kontzertu didaktikoa

ZINEMA

► **Iruñea:** Karrikiri Elkarteak antolatu, zinema euskaraz Golem zinematokian. Gaur Behiak pelikula emango da, 20:00etan. Aurretik Txotx film laburra eskainiko da.

ANTZERKIA

► **Iruñea:** Saratoveko Operako antzerki taldeak La gran Pascua rusa lana taularatuko du heldu den asteartean, 20:00etan, Gaiarre antzokian. Zuzendaria Olga Ivanova izanen da, eta XVII-tik hasi eta gaur arteko musika ortodoxoak girotuko du antzez-lana.

► **Mutiloagoliti:** TEN Pinpilinpauza taldeak Así son los animales lana eskainiko du bihar 19:00etan Kultur Etxean. Etzi, berriz, leku-

—¡Un padrenuestriño para que Deus nos liberte da xusticia!

Jainkoak justiziatik libra gaitzan, aita-guretxo bat!